



© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Edita: Instituto Vasco de Administración Pública
Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea
ISBN: 978-84-7777-658-1

**JARDUEREN
OROITZA**

2022





AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	6
2. Antolamendu-eredua	8
3. IVAP-eko zaingo batzordea	24
4. Zerbitzuak eta produktuak	26

1 Aurkezpena

Plazerra da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren 2022. urteko jardueren memoria aurkeztea. Talde osoak egindako lan handiko urtea izan da gure helburu estrategikoak betetzeko. Hori dela eta, aukera aprobetxatu nahi dut erakunde honetako langile izan diren edo harekin lankidetzan aritu diren pertsona guztiei eskerrak emateko, modu batean zein bestean, haien lana, ahalegina eta profesionaltasuna dela eta.

Orrialde hauetan zehar, iaz garatu genituen ekintza eta proiektu garrantzitsuenak modu errazean egituratu ditugu. 2022an proiektu berriak jarri genituen martxan eta urtez urte eskaintzen ditugun zerbitzuak ematen jarraitzen dugu.

2022. urtean erakunde honen planak garatu eta gauzatu ondoren, urte horretako Jardueren Memoria aurkeztu da, IVAPek ekitaldian zehar egindako ekimenak jasotzen dituena.

Memoria honetan zehazten den jarduera, aurten ere, langileen gaitasunak gizartearen beharrekinekin konektatzeko eta garatzeko herritarrekinekin dugun konpromiso irmoaren erakusgarri da, bi aldeentzat benetako balioa sortzen duten zerbitzuak eskainiz.

2017-2020 Plan Estrategikoan jasotako helburuekin bat etorritz, gure ahaleginak pertsonengan eta Euskadiko administrazioen arteko lankidetzaren ehunean ardazten jarraitu dugu, eta, horrela, proposatutako helburuak arrakastaz hedatzea ahalbidetuko duten proiektuak indartu ditugu.

Jarraian, erakunde horren eta, bereziki, erakundea osatzen duten pertsonen konpromisoa bermatzen duen jarduera aurkezten da.



2

Antolamendu-Eredua

Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP) organismo autonomoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago.

Haren xedeak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zerbitzuko hiru jarduketa-eremutan sailka daitezke:



16/1983 Legearen¹ arabera, honako hauek dira IVAPen egituraren eta eginkizunen alderdi nagusiak:

- Legeak, guztira, zortzi helburu zehazten ditu, eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeko bidea zabaltzen du.
- IVAPi aurrekontu propioa ematen dio.
- Erakundearen aginte-organismoak sortzen ditu (Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza), eta zehazten du nola osatuko diren eta zein eginkizun izango dituzten.
- Ezartzen du IVAPen egoitza Gasteizen egongo dela².

¹16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzkoa.

²Legeak ezartzen zuen IVAPeko egoitza Oñatiko Unibertsitate zaharrean egongo zela, eta, 2007an, egoitza Vitoria-Gasteizera eraman zen (2/2007 Legegintza Dekretua, Euskadiko ondareari buruzko testu bategina onartzen duena).

Hausnarketa estrategikoa

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetzaren hori honela gauzatzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak hautatzea eta prestatzea.
- Administrazioan euskararen erabilaren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatzea, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatzea eta zabaltzea.
- Ikerkuntza bultzatzea; aholkuak ematea hizkuntza-, lege- eta administrazio-gaietan eta euskal autonomiaren arloan, eta kudeaketa hobetzea.
- Administrazioaren digitalizazioa sustatzea.

BALIOAK

Funtzio publikoa arautzen duten balio eta printzipio etikoez gain, IVAPek azpimarratu nahi ditu aukera ematen diotenak kalitatezko zerbitzua emateko:

Bereziki, pertsona eta erakunde erabiltzaileei zuzentzen zaie, eta, oro har, gizarteari: laguntzeko orduan, proaktiboa izanda, eta aztertuta zein diren egungo eta etorkizuneko premiak, premiok asetzeko.

- Lantaldearekiko konpromisoa: taldeak berak ematen dio IVAPi balio erantsia, eta IVAPek, berriz, funtsezko aktibotzat jotzen du lantaldea.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza: bokazio eraldatzaile argiaz eta premia berrietara egokituz, etengabeko berrikuntzan oinarritzen du bere lana.

IKUSKERA

IVAPek erreferentzia-zentro izaten jarraitu nahi du, eta pertsona eta erakunde erabiltzaileei produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoak eskaini, honako hauek oinarri hartuta:

- Profesional nahikoa izatea, etorriko diren jarduera berriei aurre egiteko.
- Lankidetzan ari diren taldeak, arduratsuak eta etengabe ikasten ari direnak.
- Kudeaketa aurreratua.
- Eraldaketa digitala.
- Euskararen erabilera.
- Berdintasuna.
- Gardentasuna.



EGITURA

ZUZENDARIA

Maite Barruetabeña

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak emango ditu egiaztagiriak, tituluak eta diplomak; gainera, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

Fulgen Aledo

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatzeko du hura ez dagoenean. Haren mende daude, zuzenezuzenean:

- Zerbitzu Orokorrak.
- Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua.
- EVETU Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola.

Koordinazio eta Kudeaketako Idazkaritza

Imanol Uriguen

Haren egitekoa da hautaketa- eta prestakuntza-lanak betetzea. Horretarako, zerbitzu hauek ditu.

- Prestakuntza.
- Hautaketa.

Hautaketa eta Prestakuntzako Zuzendariordetza

Garbiñe Doval

Lan-eremuak: euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza, terminologia, eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea. Zuzendariordetza honetakoak dira:

- Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua.
- IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
- Terminologia Zerbitzua.

Euskara Zuzendariordetza

LANTALDEA

Profesionalak

IVAPen, 140 pertsona inguruk lan egiten dute --% 70 emakumeak dira-, honela banatuta:

LANPOSTUA	EMAKUMEZKOAK 	GIZONEZKOAK 	GUZTIRA
ZUZENDARIA	1		1
IDAZKARI NAGUSIA		1	1
ZUZENDARIORDEAK	1	1	2
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA	1		1
ZERBITZUBURUAK	3	3	6
ARLOBURUAK	4	5	9
TEKNIKARIAK	60	21	81
ADMINISTRAZIO-LANGILEAK	22	6	28
MENDEKOAK	1		1
GUZTIRA	93	37	130

Egoitzak

Langileen % 89k Gasteizko egoitzan lan egiten du, Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusiko eraikinean (Lakuan). Dena den, IVAPek beste egoitza bana du beste hiriburu bietan, Bilbon eta Donostian; horrez gain, beste egoitza bat du Oñatin. Hori dena, herritarrek nor bere bizitokitik hurbilen egin ahal izan ditzaten kudeaketak.

Gasteizko egoitza

Donostia kalea 1 · 01010

Bilboko egoitza

Rekalde zumarkalea, 18-1º · 48009

Oñatiko egoitza

Unibertsitateko etorbidea, z/g · 20560

Donostiako egoitza

San Bartolome kalea, 28 · 20007



KUDEAKETA-SISTEMATIKA

IVAP 2001ean hasi zen kudeaketa aurreratuaren kultura ezartzen. Orduan, zuzendaritzak apustua egin zuen erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntza-proiektu baten alde. Garai hartan, EFQM-rako ereduari jarraituz; orain, Euskaliteko kudeaketa aurreratuko eredua (KAE) ispilu duela. Aipatu beharra dago, gainera, ezen IVAPek, gaur egun, zuzenean laguntzen diola “Aurrerabide” Eusko Jaurlaritzako proiektuari, KAE kudeaketa aurreratuko eredua ezartzen Euskadiko administrazio orokorrean, non IVAP aitzindari eta erreferentea baita.

2005etik, IVAPek bost plan estrategiko onartu ditu, launa urtekoak eta urteko kudeaketa-planetan zabaltzen direnak. Planak burutzeko hausnarketa estrategikoa, bestalde, Estrategia Batzordean egiten da. Zuzendaritza osoa da batzorde horretako kide, eta zuzendaria, batzordeko arduraduna. Beraz, Zuzendaritzak hausnarketa-prozesu osoa bultzatzen eta bideratzen du. 2020an, hausnarketa estrategiko bat egin zen 2021-2024 urteetarako. Hausnarketa horretan, erakunde-lankideek aukera izan zuten AMIAk egiteko, eta azken dokumentuari ekarpenak egiteko.



Hona IVAPek burutu dituen aurrerapauso eta jardueretako batzuk:

Pertsonak

➤ **Zerbitzu-kartak:** erakundeak sei karta ditu; kartok urtero berrikusten dira, eta bi urtez behin ebaluatzen dira Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileen taldearen bidez, zeinetan IVAPek parte hartze aktiboa baitu 2006tik aurrera. Hauek dira zerbitzuetako kartak:

1. Hautaketa: herritarrei zuzenduta.
2. Hautaketa: administrazioei zuzenduta.
3. Prestakuntza Zerbitzua.
4. IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
5. Liburutegia / Dokumentazio-zentroa, hirigintza eta ingurumenean espezializatua.
6. Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta.



➤ **Zerbitzu-katalogoa:** urtero berrikusten dugu.

➤ **Pertsona eta erakunde erabiltzaileen premiak eta espektatibak ezagutzeko, lau azterketa egin dira (2008an, 2012an, 2017an eta 2021ean).**

➤ **Honako hauen asetze-maila neurtzen dugu:**

1. IVAPeko lantaldea.
 - 2007tik, 7 aldiz.
 - 2022az geroztik, azken ebaluazioa egin ostean, IVAPek hobetze-plana prestatzen du.
2. Enplegatu publikoak, honako hauetarikoren bat egiten badute:
 - Ikastaroetan izena eman.
 - IVAPek antolatutako jardunaldietan parte hartu.
 - Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egin.
 - IVAPeko Idazlagun zerbitzua erabili.
3. Erakunde erabiltzaileak.
 - 2005etik, inkesta egiten zaie Eusko Jaurlaritzako sailei, foru-aldundiei, udalei eta IVAPeko zerbitzuak eskatu dituzten beste erakunde publiko batzuei (Osakidetza, Arartekoa, Eusko Legebiltzarra, Ertzaintza, Lanbide...) edo gure produktuen hartzaile izan diren erakundeei.

- Lantaldea osatzen duten langileen harrera- eta despedida-plana.
- Lantaldearentzako prestakuntza-plana. Urteroko plana da, eta abiapuntutzat hartzen ditu taldeko eskariak eta premien diagnostikoa.
- Lidergoa: definitzea, eta konpetentziak berrikustea. Prestakuntza eta 360 graduko ebaluazioa.
- IVAPeko kudeaketa aurreratuaren ereduaren urteko aurkezpen-saioak.
- IVAPeko ebaluatzaileen taldea sortzea; prestakuntzaren planifikazioa egitea, eta parte hartzea Euskalit Kudeaketa Aurreratuaren Ereduko ebaluazio-klubarekin eta Aurrerabiderekkin (Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa Aurreratuaren Eredua proiektuarekin).
- IVAPeko Zerbitzuen kartetako ebaluatzaileen taldea abian jartzea, eta lankidetzan finkatzea Q-epeko zerbitzu-karten ebaluazio-klubarekin.
- 26 prozesu-talde, kudeaketarako, jarduerarako eta laguntzarako bederatzi batzordetan banatuta.
- Lantalde egonkorak edo proiektuekin lotuak.
- Barne-komunikaziorako mapa, aldizka berritzen dena.



Gizartea

- Konpromiso-diplomak 2009 eta 2011n.
- Aintzatespenak, zuzenak eta prentsakoak.
- Bekak, laguntzak eta ikerlanak.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.
- Gobernu irekia (“Open data”): herritarrei datu berrerabilgarriak ematea (itzulpen-memoriak, beste administrazio batzuen lan-eskaintza publikoak...).
- IVAPek gizartean duen konpromisoaren lehenengo neurketa.

Berrikuntza

- Akonpainamenduaren, gaikuntzaren eta aholkularitzaren berrikuntza sistematikoa.
- Asebetetzea ebaluatzea.
- Zeharkako prozesu-mapa.

Estrategia

Bost hausnarketa estrategiko (2004, 2008, 2012, 2016 eta 2020) eta dagozkien plan estrategikoak, launa urtekoak. Oraingoa 2021-2024 Plan Estrategikoa da.

- Urteroko kudeaketa-planak, plan estrategikoen hedapena.
- Lau autoebaluazio, EFQM kalitate-eredu europarraren arabera.
- Autoebaluazio bat, KAE Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera.
- Kanpo-ebaluazio bat, EFQM kalitate-eredu europarraren arabera: Zilarrezko Q.
- Kanpo-ebaluazio bat, KAEren arabera: Zilarrezko A



IVAPen mapa estrategikoa

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko

IKUSKERA

Erreferentzia-zentro izaten jarraitu bezeroari zuzendutako produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoen eskaintzaren bidez

BALIOAK

Bezero eta gizartearen ganako orientazioa
Barne-komunitatearekiko konpromisoa
Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza



ERREFERENTE PUBLIKOA

IVAP, administrazioaren eremuan, kalitatezko eredu izatea eta erakundeak gure produktu eta zerbitzuetara erakartzea

Euskal Autonomiaren Erkidegoaren Administrazio Publikoan martxan jartzen diren programa berritzaileetan parte hartzea

IVAPen jarduerari lotutako benchmarking eskaerak eta errekonozimenduak jasotzea

IVAPek, administrazio eremuan, produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzea

Zerbitzuak eta produktuak emateko modu berriak egokitzea eta garatzea

Kudeaketa aurreratuan sakontzea

Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen jarraitzea



ERAKUNDE ERALDATZAILEA

Interes taldeen gogobetetasuna hobetzea

Berrikuntza eta sormenarekin zerikusirik duten kanpo aintzatespenak lortzea

Berrikuntzaren alde proaktiboak izatea

Pertsonen lan-jardunerako behar dituzten gaitasunak ebaluatzeko metodologia eta teknologia berritzea

Adimen artifiziala eta big-dataren erabilera bultzatzea



PERTSONAK OINARRI

Gogobetetako pertsonak izatea

Pertsona kolaboratzaileak, erantzunkideak eta etengabeko ikaskuntzan ari direnak izatea

Ezagutzaren transmisioa kudeatzea

IVAPeko barne antolaketa hobetzea



BEZEROAK HELBURU

Gure produktu eta zerbitzuekin gogobetetako bezeroak izatea

Bezeroen beharrak ezagutzea eta asetzea

Bezeroekiko harreman-bideak hobetzea

Euskararen erabilera normalizatzeko tresnak eskaintzea



GIZARTEARI BEGIRA

IVAPeko langileek foro publikoetan izandako parte-hartze aktiboa izatea

IVAPeko webguneko bisita-kopurua mantentzea

Administrazioan sartzeko prozesuetan hobekuntza eta berrikuntza sustatzea

Administrazioaren baliabideak herritarren eskura jartzea

Ikerketa sustatzea eta bultzatzea

IVAPen gardentasun-maila hobetzea

Berdintasuna hobetzeko ekimen kopurua handitzea

2021-2024 Aldirako plan estrategikoa

Aginte-taula

2021-2024 Plan Estrategikoak bost lan-lerro eta hainbat helburu estrategiko definitzen ditu. Aginte-taula estrategikoa (ATE) kudeaketa-tresna bat da, IVAPek erabiltzen duena planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Lan-lerro horiekin eta helburu estrategikoekin lerrokatutako adierazle-multzo batek osatzen du. 2021-2024 aldirako ATEa, bestalde, 2020an egindako hausnarketa estrategikoaren emaitza da.

Emaitzak

- Plan estrategiko bakoitzean berrikusten den aginte-taula estrategikoa .
- Adierazle estrategikoen urteroko berrikusketa.
- Prozesu-mapa, erakundearen jardueraren oinarri diren zerbitzu eta produktuetara egokitua; mapa hori, zehazki, erakundearen zerbitzuak jasotzen dituzten administrazio eta herritar erabiltzaileen inguruan egituratzen da. Izan ere, aurrerapen handia da aurreko mapekin alderatuz, zeinetan organigrama baitzen ardatz nagusia.



IVAPen dekalogoa, datu pertsonalak babesteari buruzkoa

KUDEAKETA-ARLOKO MUGARRI ETA LORPEN GARRANTZITSUENAK

Aurrekontua: 20.822.000 €

Aurrekontua eta jarduerari buruzko datu nagusiak

Parte hartzaileak
prestakuntza-ekintzetan

18.257

Hautaketa-epaimahaietan
parte hartzea

210

Itzuli edo
berrikusitako hitzak

23.865.681

Enplegatu publikoak
prestakuntzarako
dirulaguntzen programan

79.547

Harpidedunak
Administrazioa
Euskaraz aldizkarian

14.485

Argitalpenak

32

Aurrekontua eta jarduerari buruzko datu nagusiak

- Aurrekontua: 20.822.000€.
- 18.257 lagunek parte hartu dute prestakuntza-ekintzetan:
 - Hizkuntza-prestakuntzan, 4.218 lagunek.
 - EVETU Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolan, 419 lagunek.
 - Gainerako prestakuntzetan, 13.620 lagunek.
- Prestakuntzarako dirulaguntzen programa, 79.547 enplegatu publikori laguntzeko beren garapen profesionalen.
- 69 erakundetako 210 hautaketa-epaimahaitan parte hartu dugu.
- 23.865.681 hitz itzuli edo berrikusi dira.
- 14.485 harpidedun Administrazioa Euskaraz aldizkarian.
- Ezabatu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu publikoko harpidetzak. 2022ko otsailaren 1etik aurrera, Adi Ivap aplikazioa erabiltzen da harpidetzen ordez.
- 32 argitalpen:
 - 22.liburu.
 - 10 aldizkari:
 - Administrazioa Euskaraz aldizkari 5 zenbaki.
 - Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkari 3 zenbaki.
 - Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkari 2 zenbaki.

- 903 funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.
- 7.144 monografia eta aldizkari espezializatuen izenburu, liburutegiko eta dokumentazio-zentroko funts osoa osatzen dutenak.
- Liburutegian, 42 monografia eta harpidetutako aldizkari espezializatuen 13 izenburu jaso dira, IVAPek argitaratutako hiru aldizkari ez gain eta Eusko Jaurlearitzako Ekonomia eta Ogasun Sailak argitaratutako beste batez gain.
- Webgunean, 6:115.916 bisita.



2021-2024 aldirako Plan Estrategikoa

Bosgarren plan estrategikoa, berriro ere, aurreko 2017-2020 Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatutako emaitzen fruitua da; baita IVAPek 2020an egin zuen hausnarketa estrategikoarena ere.

2021-2024 Plan Estrategikoak IVAPeko misioa, ikuskera eta balioak berrikusi eta eguneratu ditu, eta bost lan-lerro hauek finkatu ditu:

- Erreferente publikoa.
- Erakunde eraldatzailea.
- Pertsonak oinarri.
- Bezeroak helburu.
- Gizarteari begira.

Hausnarketa estrategikoaren oinarria IVAPeko pertsonen parte-hartze aktiboa da, zeren hausnarketaren une garrantzitsuetan parte hartzen dute: AMIAk aztertzean, Misioa, Ikuskera eta Balioak berrikustean, eta azken dokumentua balioztatzean. Parte-hartzeko, zuzendaritza-taldeak hainbat foro antolatzen ditu, une oro.

Kudeaketa-plana

2022ko Kudeaketa-planak lagundu egiten du 2021-2024ko Plan Estrategikoan zehaztutako helburuak hedatzen eta lortzen. Kudeaketa-planean, batetik, 2021eko ekitaldiko kudeaketaren balantzea egin zen, eta, bestetik, 2022. urterako planifikatutako helburuak eta ekintzak bildu ziren. Kudeaketa-planak, halaber, bere barnean hartzen du ebaluatzea zer mailatan bete diren aginte-taula estrategikoan ezarritako helburuak.

Ebaluazioak

Urtero, IVAPek Q-epeari eskatzen dio bere zerbitzu-kartak ebaluatzeko. Kudeaketa aurreratuan diharduten Euskadiko erakunde publikoen sarea da Q-epea, eta IVAP sare horretako kide da 2006tik. Q-epeak metodologia propioa sortu du erakunde laguntzaileen zerbitzu-kartak ebaluatzeko, eta bermatzen du ebaluazioa objektiboa, errepikagarria eta independentea izango dela, eta bi urterik behin egingo dela. 2022an, IVAPeko bi kartek “Q-epea” egiaztatzea lortu zuten: IZO Zerbitzuaren kartak eta Euskarazko Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko kartak.



2022an, “Q-epea” diplomak jaso zituzten bi zerbitzuetako langileak: IZOkoak eta Ebaluazio arlokoak.

Aitorpenak eta esker onak

IVAPeko pertsonak parte hartu zuten Bilboko Udalak antolatutako enplegu-foroan eta Euskaliten Gizarteari buruzko gida egiten, eta horrek, 2022an, bi aintzatespen ekarri dizkio erakundeari.

Halaber, IVAPeko Zuzendaritzak pertsona batzuei aitortu zien beren dedikazio berezia, jarduera bikaina edota polibalentzia eta malgutasun funtzionala. Aitorpen formalak izan ziren, erakundeak modu sistematizatuan egiten dituenak, IVAPen eta pertsonen arteko harremanak indartzeko asmoz, portaerek eta lorpenek helburu estrategikoekin bat egiteko estrategiaren barruan.

lax, gainera, IVAPen lanean jardun duten zenbait langileri omenezko aintzatespen-ekitaldia egin genien. Batetik, luzaroan lankide izan ostean, Pilar Arzuaga eta Jon Biain omendu genituen, erretiroa hartu berri baitzeuden. Eta, bestetik, IVAPen 25 urte eman dituzten lankideak saritu genituen; honako hauek, hain zuzen: Maite Imaz eta Kontxi Alonso.



Fulgen Aledo, IVAPeko idazkari nagusia, Bilboko Udaleko enplegu foroan emandako hitzaldian.

3 IVAP-eko zaingo batzordea

IVAPeko Zaingo Batzordea kide anitzeko organoa da, eta bere gain hartzen ditu erakundearen jardueren plangintza orokorra, ikuskapena eta jarraipena. Patronatu horrek ezin izan zuen hainbat urtetan bildu, eta 2022an ekin zion berriro bilkurei, 2023rako plangintzak eta aurrekontua onartzeko. Bileran izan ziren Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua eta Maite Barrueta Zuzendaria. Erakunde Harremanetarako sailburuorde Jone Berriozabalekin, Funtzio Publikoko sailburuorde José María Armentiarekin, IVAPeko idazkari Fulgen Aledorekin, IVAPeko zuzendariordeekin eta Foru Aldundietako, Eudeleko eta EAEko Administrazio ordezkariekin batera.

Bilera horretan, Zaingo Batzordearen kideen aurrean IVAPen ohiko zereginak errepetatu ziren, eta, ildo horretan, Erakundeak datorren urterako dituen planak aletu ziren. Bereziki azpimarratuz diseinatu berri den EKI Plana, Ezagutza Kudeatzeko Plana jasotzen duena.

Zuzendariak, era berean, IVAPek lan-eskaintza publikoaren arloan aurtun egindakoa eta hurrengo urterako aurreikusitakoa helarazi zituen, 2023an Erakundeak 40 urte beteko dituela azpimarratuz, urteurren hori baliatuz erakunde horren ibilbidea balioesteko zenbait ekintza gauzatzeko.



Olatz Garamendi Landa, EJKo Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburua eta Maite Barrueta Zuzendaria, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria.

4 Zerbitzuak eta produktuak

The background of the slide features a close-up of a person's hands typing on a laptop keyboard. The image is overlaid with several semi-transparent icons: a checklist with a checkmark, a warning triangle, a magnifying glass, and a document with lines of text. A large, stylized number '4' is positioned to the left of the main title text.

Koordinazio eta kudeaketako idazkaritza

ZERBITZU OROKORRAK

➔ Informatika Atala

IVAPeko aplikazio informatikoen kudeaketa- eta mantentze-lanak.


Gutxi gorabehera, 8.500 ordu inguru eman dira egokitzapen-lanetan. Izan ere, IVAPeko 22 aplikazio eguneratu dira, hobekuntza teknologikoak egin dira, eta, gainera, kudeaketa-lanetarako funtzionalitate berriak sartu dira.

Besteak beste, honako egokitzapen-lan hauek azpimarratu behar dira:

- IVAPeko kobrantza- eta ordainketa-sistema integrala migratzea, fakturazio elektronikoko sistemekin eta IVAPeko gainerako aplikazioekin lotuta.

- Solaskideguneari funtzionalitate berriak ematea euskalduntzeko eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko arloetan, administrazio publikoen eta IVAPen arteko informazio-trukea errazte aldera.

- IVAPeko gailu mugikorretarako ADIVAP aplikazioari jakinarazpen berri bat gehitu zaio; hain zuzen ere, administrazio-hizkera argiaren blogeko berriena. 2022an, Androideko 12.500 deskarga egin ziren, eta iOSeko 4.430 deskarga.



Garapen informatiko berriak

Adimen artifizialean oinarritutako sistema bat garatu da, IVAPen gaztelaniazko zein euskarazko itzulpen-memoretako datu pertsonalak identifikatu eta, ondoren, ordeztzeko.



Lankidetzan informatikoa beste erakunde batzuekin

Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Arabako Batzar Nagusien, Bizkaiko Batzar Nagusien, Eusko Legebiltzarraren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku jarri da, egin behar diren deialdiak egiteko.

IVAPen web-orria

IVAPeko web-orriari dagokionez, 2022. urtean, 2.062.406 saio egin dira, eta 6.115.916 orri bisitatu dira. Saio bakoitza, batez beste, 3:03 minutukoa izan da, eta, saio bakoitzean, batez beste, 2,97 orrialde ikusi dira.

➤ Berdintasunerako Atala

IVAPen plan estrategikoko helburuen artean (2021-2024), berdintasuna hobetzeko ekimenak jasotzen dira. 2021. urtean, IVAPeko Berdintasun teknikari lanpostua sortu zen, eta, horrekin batera, egiturari kokatu zen Berdintasunerako Unitatea. Horrela, aurrerapauso garrantzitsua eman zen aipatutako konpromisoan, oinarritzko baldintzetako bat jarri baitzen helburua lortzeko.

Berdintasun Unitatearen egitekoak, besteak beste, hauek dira: IVAPen, berdintasun-planak eta -programak proposatzea; haien jarraipena egitea; erakundearen jardura-eremuan, genero-ikuspegia txertatzea; erakundeko pertsonalari aholku ematea; pertsonalaren prestakuntzari buruzko diagnostikoa eta proposamenak egitea, eta berdintasun-politiken koordinazio teknikoan parte hartzea.

2022. urtean, Berdintasunerako Unitatea IVAPen egiturari egonkortzen joan da. Zehar-lana eta koordinazioa indartu dira hala Barneko Berdintasun Batzordearen bidez, nola bestelako koordinazio-guneetan parte aktiboa izanik. Horrela, bada, premiak eta erronkak identifikatuta, oinarriak jarri dira premia eta erronka horiei erantzuteko baliabideak sortzeko. Horrez gain, IVAPen Berdintasun-plana indartu da, eta, besteak beste, diagnostikoa egiteko eta datuak biltzeko baldintzak garatu dira.

Egun EAeko Berdintasunerako lege berriak –martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumearen aurkako indarkeriarik gabe bizitzeko testu bategina– ezartzen dituen berrikuntzak direla eta, neurriak landu dira erakundearen jarduran txertatzeko. Prestakuntza-arloan, zehazki, berdintasunari buruzko prestakuntza aztertu da, eta Emakunderekin elkarlana finkatu da 18. artikulua jasotzen duena bermatzeko bidean. Bestalde, kontratuak aztertzen ere bagabiltza, Legeak ezartzen dituen agindu berrietara egokitzeko.

IVAPeko Berdintasun zerbitzuak lan aktiboa egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean, eta baita Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako berdintasun-batzorde iraunkorrean ere. Besteak beste, lehenengoan, EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. planaren diseinuan parte hartzen ari da. Eta, bigarrean, II. Berdintasun-plana egiteko lanketan aritu da.

Era berean, Gobernantza eta Autogobernu Saileko Berdintasunerako talde teknikoan ere parte hartzen du.



AZTERLAN ETA ARGITALPEN ZERBITZUA

Ikerketarako laguntzak

Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerlanak egiteko deialdia diseinatzea eta kudeatzea. Hainbat ikerkuntza ikuspuntutatik jorra daitezke deialdian aurkezten diren azterlan eta ikerlanek aipatzen dituzten gaiak, eta loturaren bat izan behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta administrazio publikoen jardunaren arloarekin.

IKERLANAK ETA LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzaren
Liburutegian gordetako
ikerlanak

Deialdia: 2021-2022

«Segregación socioresidencial, desigualdad social y política de vivienda en el País Vasco».

(Itziar Aguado Moralejo, Roberto Torres Elizburu eta Nagore Dávila Cabanillas)

«La mediación penal penitenciaria: análisis crítico y propuesta de un modelo concreto para la Administración Penitenciaria Vasca».

(Isusko Ordeñana Guezuraga eta Raquel Castillejo Manzanaras)

Ikerketa-sariak

Jesús María Leizaola sarirako deialdia diseinatzea eta kudeatzea, euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten eta edozein ikuspegi zientifikotatik egindako ikerlanetarako.

2022an, epaimahaiak aho batez erabaki du:

- «Jesús María Leizaola» saria hutsik uztea.
- «Jesús María Leizaola» sariaren akzesita hutsik uztea.

Lege- eta antolakuntza-arloko aholkularitza-lanak

Eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak antolatzearekin eta hobetzearekin zerikusia duten gaiei buruz; aholku-eskeei erantzutea, eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

Jardunaldi eta mintegi berezituak

Topaketak taxutzea eta antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasunei, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaitan sakontzeko.

19 TAULA : JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK

IZENBURUA	DATA	LEKUA	parte-hartzaileen kopurua
ZUZENDARIA	1		1
IDAZKARI NAGUSIA		1	1
ZUZENDARIORDEAK	1	1	2
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA	1		1
ZERBITZUBURUAK	3	3	6
ARLOBURUAK	4	5	8
TEKNIKARIAK	60	21	81
ADMINISTRATIO-LANGILEAK	22	6	28
MENDEKOAK	1		1

JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK

IZENBURUA	DATA	LEKUA	parte-hartzaileen kopurua
Legea europartasun- eta konbentzionaltasun-kontrolaren aurrean	Maiatzaren 19a eta 20a	Donostia	39
Lurralde-maila anitzeko gobernantza Next Generation EU funtsak egikaritzean	Uztailaren 13a, 14a eta 15a	On-line + Donostia	40
Emakumearen aurkako indarkeria: Istanbulgo Hitzarmenaren inguruko erronkak	Irailaren 12a eta 13a	On-line + Donostia	35
Kontratazio Publikoaren Behatokiaren IV. Kongresua	Azaroaren 2a, 3a eta 4a	Donostia	250

Monografías editadas o coeditadas

Adenda al manual de haciendas locales de Euskadi

GALDEANO LARIZGOITIA, Iñaki
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-643-7.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-644-4

Curso básico de derecho administrativo patrimonial

SANTAMARÍA ARINAS, René Javier
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-651-2.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-652-9

Batería de preguntas de procesos selectivos: Cuerpo Auxiliares Administrativos

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-664-2.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-665-9

Batería de preguntas de procesos selectivos: Cuerpo Administrativos

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-660-4.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-661-1

Batería de preguntas de procesos selectivos: Temario general

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-668-0.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-669-7

Batería de preguntas de procesos selectivos: Agrupación Profesional de Personal de Apoyo del Gobierno Vasco (conserje, ordenanza, subalterno, ...)

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-641-3.
Ed. digital ISBN: 978-84-7777-642-0

Hautaketa prozesuetako galdera sorta: Administrazio Laguntzaileen kidegoa

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-666-6. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-667-3

Hautaketa prozesuetako galdera sorta: Administrarien kidegoa

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-662-8. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-663-5

Hautaketa prozesuetako galdera sorta: Gaitegi orokorra

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-670-3. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-671-0

Hautaketa prozesuetako galdera sorta: Eusko Jaurlaritzako Laguntzako Langileen Talde Profesionala (atezaina, mandataria, menpekoa, ...)

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-639-0. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-640-6

Jardueren oroitzia 2021 / Memoria de actividad 2021

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-657-4. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-658-1 (castellano). Ed. digital ISBN: 978-84-7777-659-8 (euskerara)

Recursos, gasto y deuda del Gobierno Vasco y de las diputaciones forales. 1985-2019

ANSOATEGUI FERNÁNDEZ DE ARROYABE, Iñaki
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-629-1. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-630-7

Las relaciones internacionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Balance de cuarenta años y perspectivas (1980-2021)

UGALDE ZUBIRI, Alexander
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-647-5. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-648-2

20 aholku hizkera juridiko-administratiboa hobetzeko

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-645-1. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-646-8

Diálogos judiciales y autogobierno. Estudio socio-jurídico sobre un epifenómeno de la justicia en Euskadi, en España y en Europa

BENGOETXEA CABALLERO, José Ramón
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-653-6. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-654-3

El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: la Ley de Instituciones Locales de Euskadi

ATELA URIARTE, Aizbea
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-655-0. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-656-7

La mujer víctima de violencia: análisis multidisciplinar del ordenamiento jurídico español y europeo a la luz del Convenio de Estambul

ETXEBERRIA BEREZIARTUA, Eneko; GARRO CARRERA, Enara; LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena; MARINAS SUÁREZ, Dunia; ZELAIA GARAGARZA, Maite. Director: ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco. Coordinadoras: OTAZUA ZABALA, Goizeder y ETXEBARRIA ESTANKONA, Katixa
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-649-9. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-650-5

Euskadiko Toki Ogasunei buruzko eskuliburua

GALDEANO LARIZGOITIA, Iñaki
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-601-7. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-602-4

Transformación y reforma constitucional. Desafíos y límites

(AA.VV.) Coordinadores: UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio; SAIZ ARNAIZ, Alejandro; MARTINICO, Giuseppe; SARMIENTO RODRÍGUEZ-ESCUADERO, Daniel y MORALES ANTONIAZZI, Mariela
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-672-7. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-673-4

Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2023)

URRUTIA LIBARONA, Iñigo e IRUJO AMETZAGA, Xabier
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-674-1. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-675-8

Zalantza-dantza 2022

AMATRIA CUESTA, Xabier; AYERDI SAGARDUY, Begoña; BARRENETXEA IPARRAGIRRE, Urtzi; FERNANDEZ MAIZTEGI, Irene y ZUNTZUNEGI LEGARRETA, Izaskun
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-678-9. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-679-6

Potestad sancionadora y seguridad ciudadana (Al hilo de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional) (SsTC 172/2020 y 13/2021)

ABERASTURI GORRIÑO, Unai; ARRESE IRIONDO, Nieves; CUBERO MARCOS, José Ignacio; LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki; LAZKANO BROTONS, Iñigo y URRUTIA LIBARONA, Iñigo
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2022. ISBN: 978-84-7777-676-5. Ed. digital ISBN: 978-84-7777-677-2

IVAPen argitalpen seriatuak

Administrazioa Euskaraz

Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 1993. ISSN: 1576-5563. 2022: 115, 116, 117 eta 118. zenbakiak; "Solasaldiak" 19. zenbakia.

30. taula: Administrazioa Euskaraz aldizkaria	
Argitaratutako zenbakiak	Harpidedun kopurua
115	14.609
116	14.579
117	14.539
118	14.485

Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública

Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 1981. Lau hilabetetan behin. ISSN: 0211-9560. 2022: 122, 123 eta 124. zenbakiak osArgazki egokiak jarri



Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas

Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 2011. Sei hilabetetan behin. ISSN: 2173-6405. 2022: 22 eta 23. zenbakiak osArgazki egokiak jarri



- Aldizkaria hiru hilabeterik behin argitaratzen da. 1993an sortu zen.
- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, IVAPeko web-orrian.
- Aldizkariarekin batera, Solasaldiak izeneko eranskina ematen dugu argitara. Urtean behin, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu 26 orrialdeko eranskin horretan. 2022an, Benito Lertxundi elkarrizketatu dugu.



EVETU Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko prestakuntza espezializatua

EVETU Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren helburuetako bat da prestakuntza- eta lanbide-hobekuntzako jarduerak ematea lurralde- eta hiri-plangintza arloan, exekuzio-arloan, kudeaketa-arloan eta hirigintza-diziplina arloan.

“Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaroa”

Ikastaroa sei eskola-modulu teoriko-praktikok osatzen dute (700 ordu), eta erakunde edo enpresetako aukerako praktikak (300 ordu). Ikastaroa deialdi bakar batean egin daiteke, edo moduluka, apurka-apurka.

2022an, Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako XLVII (47) Ikastaroa amaitu da. Ikastaroko sei modulu egin dira: hiru Bilbon (IV., V. eta VI. moduluak), moduluen bigarren edizioa Donostian (III. eta IV. moduluak). Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako XLVIII (48) Ikastaroa (2022-2023) hasi da, lehen hiru moduluekin (I, II., III.).

Aukerako praktikak, erakunde nahiz enpresetan (300 ordu).

- Praktikak: XLVII. (47) (2021-2022) Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaroko ikasleen praktikak Santurtzi, Leioa eta Alonsotegiko udaletan egin dira.

Moduluak deialdi bakar batean egin daitezke osorik edo banaka. Sei moduluak egin ondoren, IVAPek «Hirigintzako diploma» emango du.

Hirigintzari, lurralde-antolamenduari eta ingurumenari buruzko ikastaro monografikoak eta jardunaldiak egin dira

- Curso Superior de Urbanismo.
- Valoraciones Urbanísticas.
- Curso básico de urbanismo.
- Hacienda Local, especial referencia al urbanismo.
- Curso sobre ITE.
- Licencias urbanísticas.
- Hirigintza ikastaroa.

6. TAULA: EVETUKO DATUAK 2022*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburu zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume matrikulatuen %	Eskaintako ordu kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	149	77	52%	700	99,4%
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	26	19	73%	276	100%
Ikastaro monografikoak	12	7	244	142	58%	214,5	98,6%
Guztira	20	15	419	238	57%	1.190,5	99%

*Datuak urte naturalean

6. TAULA: EVETUKO DATUAK 2021*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburu zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskaintako ordu kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	7	7	141	96	814	99
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	24	12	276	96
Ikastaro monografikoak	12	10	269	187	267,5	78
Guztira	21	19	434	295	1.357,5	91

6. TAULA: EVETUKO DATUAK 2020*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburu zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskaintako ordu kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	130	70	700	100
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	40	21	276	99
Ikastaro monografikoak	7	5	122	82	128	99
Guztira	15	13	292	173	1.105	99

6. TAULA: EVETUKO DATUAK 2019*

	Prestakuntza-ekintzak	Helburu zehaztuak dituzten prestakuntza-ekintzak	Matrikulak, guztira	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskaintako ordu kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	174	102	700	98
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	1	1	20	11	146	10
Ikastaro monografikoak	11	9	262	156	254	92
Guztira	18	16	456	269	1.100	96,66

*Datuak urte naturalean



Liburutegia/ Dokumentazio-zentroa, hirigintza eta ingurumenean espezializatua.

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua

Liburutegia/Dokumentazio-zentroak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuen berri ematea erabiltzaileari, eta informazioa eta dokumentuak bilatzen laguntzea. Liburutegiak ez badu eskatutako baliabideren bat, informazioa ematen du beste liburutegi edo zentro batzuetan aurkitu eta eskuratu ahal izateko. Zerbitzu honen barruan sartzen da erabiltzaileari argibideak ematea online katalogoa erabiltzeko, liburutegiko funtsak kontsultatzeko, bai eta funts horien eskuragarritasuna eta maileguren egoera ere.

Erreferentzia- eta informazio-zerbitzu hau bermatzeko, eskura dauden baliabide guztiak erabiltzen dira, bai Liburutegikoak/Dokumentazio-zentrokoak, bai kanpokoak. Azken horiek liburutegien arteko maileguaren (Eusko Jaurlaritzako langileentzako zerbitzu eksklusiboa) eta Interneten bidez.

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko funtsak

Liburutegiko/Dokumentazio-zentroko monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzeko aukera ezberdinak eskaintzea:

- Irakurgelan bertan monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzea.
- Liburutegiak/Dokumentazio-zentroak harpidetzan dituen aldizkako argitalpenen artikuluak banatzea.
- Etxerako mailegua: zerbitzu honek aukera ematen du funts monografikoak liburutegitik kanpo erabiltzeko.
- Liburutegien arteko mailegua: IVAPeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek Liburutegien/Dokumentazio-zentroan eska ditzakete beste erakunde batzuetako liburutegietako materialak.
- Eusko Jaurlaritzako liburutegien arteko mailegua, erabiltzaileek guztien funtsak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Erreserba: kontsulta egiten denean katalogoko obraren bat ez badago maileguan hartuta dagoelako, aukera ematen da gordetzeko eskatzeko.
- Maileguak berritzea: obra bat entregatzeko epea luzatzeko aukera, baldin eta aurretik beste pertsona batek erreserbatu ez badu.
- Erreprografia: zerbitzu hau erabilgarri dago maileguan eraman ezin diren materialetarako.

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko argitalpen espezializatuak

2022an, herritarrei "Hirigintza-kodea" aurkeztu zitzaizen, IVAPek argitaratu baitzuen.

Informazioa gaika hedatzeko zerbitzua

Aldiro-aldiro, Hirigintza eta Ingurumenari buruzko informazio buletinak idaztea.

Web bidezko zabalkunde-zerbitzua

Web-orriaren bidez, liburutegiak honako produktu hauek zabaltzen ditu:

- Liburutegiko / Dokumentazio-zentroko katalogoa.
- Liburu Berrien Buletinak.
- Aukeratutako Informazioa Hedatzeko buletinak.
- Esteka interesgarriak.

20. taula: Liburutegiko / Dokumentazio-zentroko datuak

Erantzundako informazio-kontsultak	51
Erabilitako funtsak, irakurgelan bertan kontsultatuta eta posta elektronikoen bidez bidalita	964
Etxerako maileguak eta maileguak berritzea	88
Liburutegien arteko maileguak	10
Prestatutako, zabaldutako eta web-orrian argitaratutako informazio buletinak	10
Informazio buletinen jasotzaileak	494
Web-orrian argitaratutako Liburu Berrien Buletinak	3
Liburutegiaren web-orrian egindako kontsultak	7.547

Hautaketa eta Prestakuntzako Zuzendariorde

Pertsonak hautatzea, eta kompetentziak ebaluatzea

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordeko bana izendatzen du epaimahaietan parte hartzeko eta aurrera eramateko euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak.

Probak prestatzea edota zuzentzea

Zenbait administrazio eskatuta, IVAPek hautaketa-prozesuetako probak diseinatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko dituen erantzukizunak.

